



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

BRETXAN KIROLDEGI EZAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Bretxako kiroldegi eza dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko ekainaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak, urteetako lanaren ondoren, eta oztopo politiko guztiak gaindituz, Bretxako Arraindegi eraikuntzaren erabilera berreskuratu zuen. Argi dago Erdialdeak eta Parte Zaharrak zerbitzu publikoen beharra dutela, eta lur sail egokirik ez dagoela inguruan. Hori dela eta, anbulategiaren birkokapena lehentasun osoa izan da, eta auzotarren beste beharrak asetzeko ere lan egin da.

Besteak beste, Kirol Patronatuak egindako txostenean kiroldegi berri bat eraikitzea landu zuen; kontuan hartuta Udalak eremu horretan zerbitzurik ez duela eskaintzen, auzotarren adina, eta kirol txartelen kopurua, auzoen artean, baxuena dela. Aurreko Udal Gobernuak egindako aurreproiektuan kiroldegiak azken solairua hartuko zuen osorik eta kirol pista, gelak, gimnasioa, aldagelak eta abar izango zituen.

Baina alkateak Bretxarako aurkeztutako asmoan, gure amets-gaiztoak egi bihurtu dira: auzotarrek ez dute benetako kiroldegirik izango. Hau ikusita, Udal Gobernuak Udalbatzan auzoko eragileekin kirol programa tartekatzearen kontra bozka ematea ulertzen dugu. Udal Gobernu honek ez baititu bere asmoak edota gogoetak eragileekin konpartitzen. Auzoan haserrea begien bistakoa da, kiroldegi bat izateko aukera galduko baitute, nahiz eta Udalak baliabideak eta auzoak beharrak izan.

Zinegotzi ordezkariak, batzordean, kirol instalazioa kirol pista izango zela esan zuen. Gure ustez, kiroldegi batek gimnasioa, kirol anitzerako gelak eta taldeentzako eta erabiltzaileentzako aldagelak ere izan behar ditu. Ibabe jaunak, “kiroldegi” hitzaren esanahia argitu nahian, batzuek igerilekua dutela aipatu zuen, baina Donostiako kiroldegi xumeetan, igerileku gabekoetan, aipatutako zerbitzuak eskaintzen dira gutxienez. Kirol pista Orixe ikastolarentzat eta kirol taldeentzat

garrantzitsua izango da, baina gainerako herritarrek, instalazio berriak gimnasiorik eta kirol anitzerako gelarik (kirol ekintzak, 65+, kurtsoak emateko) ez badu, ez dute erabiliko. Beraz, instalazioa hankamotz jaioko da. Denontzako kiroldegi berria egiteko aukera dugu, ordea.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak kontrol mozio hau aurkezten du.

MOZIOA

1- Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio Bretxako Arrandegi eraikinean lehen aipaturako zerbitzuak bermatuko dituen kiroldegi berria egin dezan.

Donostian 2016eko ekainaren 24an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia